

# Hezkuntzako protokoloa **transexualitate** kasuetarako





# Hezkuntzako protokoloa **transexualitate** kasuetarako



Titulua: Hezkuntzako protokoloa transexualitate-kasuetarako  
Egilea: Ebaluazio, Kalitate, Prestakuntza eta Bizikidetzaz Zerbitzua

© 2015. NAFARROAKO GOBERNUA  
Hezkuntza Departamentua

Diseinu grafikoa: [www.cobo-munarriz.com](http://www.cobo-munarriz.com)  
Inprimaketa: Gráficas Arga  
L.G.: NA 28-2017

## AURKEZPENA

***Hezkuntzako protokoloa transexualitate-kasuetarako argitaratu da azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legeko Transexualitatearen trataera hezkuntza sisteman izeneko I. kapituluko 12. artikulua ezarpena gauzatzeko. Foru lege hori pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa da.***

Genero-nortasuna bizian zehar egiten joaten da eta autokontzeptuaren eta inguruko pertsonen nortasun horretaz duten hautematearen bidez egituratzen da eta, orobat, lehen haurtzarotik jadanik egonkorra izan daiteke. Beraz, posiblea da sortzean esleitutako sexuarekin bat ez datorren genero-nortasuna izatea etapa horretan. Transexualitateaz ari gara.

Hezkuntza Departamentuak uste du adingabe bat transexualitate-egoeran dagoenean zenbait neurri ezarri behar direla, ikaslearen integrazioa errazteko eta hezkuntza erkidegoko kide guztiei arreta egokia emateko.

Hezkuntzako protokoloa transexualitate-kasuetarako ezarri da, hezkuntza esparruan transexualitate-egoeran dauden adingabeen kasuetan esku hartzen duten agenteei laguntzeko. Protokolo horrek atal hauek izanen ditu:

1. Transexualitate-egoera komunikatu eta identifikatzea.
2. Ikastetxean hartu beharreko antolaketa-neurriak.
3. Hezkuntza erkidego osorako prestakuntza plan integrala.
4. Eskolan diskriminazio eta jazarpenerako balizko kasuak daudenean hartu beharreko neurriak.

Hezkuntza Departamentuak uste du protokolo honekin genero-nortasunen dibertsitatea gero eta gehiago ulertu eta errespetatuko dela, bai eta ikasleek eta familiek alor honetan dituzten premia partikularrak ere.



### **1. Transexualitate-egoera komunikatu eta identifikatzea**

---

- a) Sexu-nortasuna eta sortzean esleitutako sexua bat ez badatoz, adingabe emantzipatugabearen legezko ordezkarietako edozeinek horren berri eman diezaioke ikastetxeari. Horretaz gainera, hezkuntzako profesionalen arduraren da transexualitate-egoera horretaz jabetu eta hari harrera egitea eta, orobat, hezkuntzako orientazio-taldeari eta zuzendaritzari adingabeak erakusten duen edozein zantzuren berri ematea, sexu-nortasuna eta sortzean esleitutako sexua bat ez etortzeari dagokionez.
- b) Kointzidentziarik eza komunikatu ondoren, Zuzendaritza Taldeak informazio horren berri emanen die ikaslearen ikastetxeko irakasleei eta orientazioko arduradunei, hezkuntza premiak identifikatzeko eta sentsibilizazioan, informazioan eta prestakuntzan beharrezko neurriak hartzeko, adingabea ikastetxean osoki integratzen dela eta ikaslearen sexu-nortasuna errespetatzen dela ziurtatzeko. Hori, egoera jendar-tean ezagutzea nahi denean. Aldiz, ikaslearen osasun sozioemotionala kontuan izanez adingabearen intimitatea gorde nahi izanez gero, hel-buru horrekin bat jotatuko da.
- c) Era berean, ikastetxeko edozein irakasle ohartzen bada ikasle adingabe batek sortzean esleitu zioten sexuarekin bat ez datorren sexu-nortasuna agerian uzten duten jokabideak behin eta berriz eta luze egiten dituela bere legezko ordezkariak deus ere hauteman gabe, Zuzendaritza Taldeari egoera horren berri emanen dio. Zuzendaritzak adingabearen legezko ordezkariari ikastetxeko irakasle tutorearekin eta hezkuntzako orientazioko arduradunarekin bilera bat egiteko proposatuko die eta hartan hautemandako gertaeren gaineko argibideak emanen dizkie.
- d) Kasua identifikatu eta komunikatzeko modua edozein izanik ere, Zuzendaritzak adingabearen legezko ordezkariari ikastetxeko irakasle tutorearekin eta hezkuntzako orientazioko arduradunarekin bilera bat

egitea proposatuko die, hezkuntzan edo hezkuntzatik kanpo (zerbitzu instituzionalak, transexualitate-egoeran dauden adingabeen familien erakundeak eta abar) eskura dauden baliabideen berri emateko. Bilera horretan prozesu bat abiatzeko aukera dagoela esanen zaie, hezkuntza premiak identifikatzeko eta ikastetxean egin beharreko balizko jarduketak adostuta ezartzeko eta, orobat, Hezkuntza Departamentuko Bizikidetza Aholkularitzak esku hartzea bidezkoa denetz baloratuko da.

- e) Adingabearen hezkuntza premiak identifikatzerakoan ikaslearen garapen pertsonal eta sozialean sexu-nortasunarekin zerikusia duen arazo edo zailtasunen bat hautemanen balitz eta hezkuntza sistematik kanpoko beste baliabide espezializatu batzuk beharko balira, baliabide horien gaineko argibideak emanen litzaizkieke legezko ordezkarietara.
- f) Komunikazio eta identifikazio prozesuetan adingabearen intimitaterako eskubidea bermatuko da eta transexualitatearen komunikazioa, elkarriketen edukia eta ekarritako informazioaren erabateko konfidentzialtasuna gordeko da.

## **2. Ikastetxean hartu beharreko antolaketa-neurriak**

---

Igarotze prozesuaren harrera-plan bat prestatuko da eta hartan beti kon-tuan izanen da kasuaren berezitasuna arlo hauetan:

- legezko ordezkarien jarrera,
- ikasgelan eta ikastetxean duen onarpen soziala (bizikidetza planak arautua) eta
- transexualitate-egoeran dagoen adingabearen egoera emozionala eta bizi-egoera.

Hartuko liratekeen neurrien artean esparru hauek sartuko dira: hezkuntza esparruko jarduketako prozedurak, irakasleendako prestakuntza, familiei zabaltzea, ikasleen tutoretzak eta ikastetxearen ideiek sexu-dibertsitatearekin bat egiteko konpromisoa.



## KONTUAN IZAN BEHARREKO NEURRIAK:

- a) Adingabeak erregistroko izena zuzendu gabe badu, ikastetxeko irakasleei eta administrazioko eta zerbitzuetako langileei adieraziko zaie transexualitate-egoeran dagoen ikaslea hark aukeratutako izenaz deitu behar dutela edo, emantzipatuta ez badago edo aski heldua ez bada, bere legezko ordezkarietako baten batek adierazitakoaz. Izen hori ikastetxean egiten diren eskola jarduera eta eskolaz kanpoko jarduera guztietan erabiltzeko duen eskubidea errespetatuko da, bai eta azterketetan ere.
- b) Hezkuntza Administrazioiko datu-baseetan erregistroko nortasun-datuak mantentzea galarazi gabe, jendaurrean jartzen den dokumentazio administratiboa eta ikasleari igorri beharrekoa (ikasgelako zerrendak, kalifikazioen informazio-buletina, ikasle txartela, etab.) egokituko dira. Aukeratutako izena dokumentazio horretan agertuko da eta, orobat, gainerako ikasleen izena azaltzen den modu berean azalduko da.  
  
Adingabeak erregistroko izena zuzenduta badu, izen horrekin bat datorren titulazioa emanen da, edozein izanik ere historial akademikoan agertzen den izena.
- c) Ikaslearen irudi fisikoa errespetatuko eta errespetaraziko da, bai eta haren jantzia aske aukeratzeko eskubidea ere. Ikastetxean sexuaren araberako uniforme bereziak janztera beharturik badaude, ikasleak eskubidea izanen du berak adierazitako sexu-nortasunari dagokiona janzteko.
- d) Sexuaz bereizitako jarduerak egiten badira, ikasleak sentitutako sexua kontuan izanen da.
- e) Ikastetxean sexuaren araberako instalazioak badaude, hala nola komunak eta aldagelak, gainerako ikasleekin gertatzen den bezala, transexualitate-egoeran dagoen adingabeari bermatuko zaio berak sentitutako sexuari dagozkion instalazioetan sartzea eta haiek erabiltzea izanen duela.
- f) Neurri horiek gauzatzeko moduari dagokionez, adingabeari esan eta kontsultatuko zaio zein den neurri horiek hartzeko modurik onena. Orobat, kontuan izanen da pertsona horrek zer pentsatzen duen eta erosoan eta babestuen nola sentituko den. Banaka eta/edo taldean hausnarketa neurritzko eta gidatua egiteko espazio eta denborak beharko balira, ikastetxean prestatuko dira.

- g) Neurri horiek hartzeko ez da alde zuretik inongo txosten mediko edo psikologikorik behar.
- h) Adingabe emantzipatugabearen legeko ordezkarietako baten bat ez badago ados aurreko neurri horiekin, Zuzendaritzak gizarte zerbitzuei jakinaraziko die transexualitate-egoeran dagoen adingabearen kasuari heltzeko moduan desadostasuna dagoela.
- i) Hezkuntza Departamentuari esku-hartzea, aholkularitza edo prestatuntza eska dakizkioke (Bizikidetzaren Aholkularitzaren bitartez).
  1. ERANSKINEKO ereduak erabiliko da horretarako.
- j) Komeni da irakasle taldearekin eta behar den ikastaldeko tutorearekin alde zuretik bilera egitea, ikaslearen egoeraren berri emateko, hurrera gaur egungo nortasunarekin prestatzeko, eta haren integrazioa errazteko eta balizko gatazkak edo homofobiagatiko eta transfobiagatiko eskola jazarpena saihesteko gomendioak transmititzeko.

### 3. Prestakuntzako plan integrala

---

Transexualitate-egoeran dagoen adingabea laguntzeko, ezinbestekoa da errealitate hori ezagutu eta ulertzea. Horretarako, hezkuntza erkidego osoa kontuan hartuko duen prestatuntzako plan integrala ezarriko da. Plan integral horrek landu beharreko kasuaren berezitasunen beharrak kontuan hartuko ditu.

PLANA PRESTATZEKO AUKERAK:

- a) Irakasleen prestatuntza:** Bi saio eginen dira, gutxienez. Lehenean, transexualitatea haurtzaroan eta gazterian nolakoa den aztertuko da. Hurrengo saio(et)an eguneroko dinamikan aurkitutako egoera zehatzean eta zailtasunetan sakondu eta haiek aztertuko dira.

- b) Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen prestakuntza:** Transexualitatea haurtzaroan eta gazterian nolakoa den jakiteko oinarritzko saio bat eginen da, gutxienez.
- c) Gurasoen prestakuntza:** Transexualitatea haurtzaroan eta gazterian nolakoa den jakiteko oinarritzko saio bat egitea komeni da, gutxienez. Gurasoen elkarteetan lankidetzat izanen da. Oso garrantzitsua da transexualitate-egoeran dagoen adingabea dagoen zikloko ikasleen familia-unitate bakoitzeko heldu bat bertan izatea. Prestakuntza hau errepika daiteke, beharrezkotzat jotzen bada. Esaterako, zikloa aldatzean edo adingabearen ikasgelan familia berriak sartzen direnean.
- d) Esku-hartze psikopedagogikoa ikasgelan:** Gizakien egintza sexualaren dibertsitatea ezagutu eta sustatzeko programa garatuko da eta programa horretan transexualitatearen beste egintza bat gehiago izanen da. Esku-hartzea ikasgela bakoitzean eta, behar denean, ikastetxe osoko ikasleekin eginen da eta, orobat, adin eta kasu bakoitzaren beharren arabera izanen da.
- e) Aholkularitza berezia eskainiko da transexualitate-egoeran dagoen ikaslearekin lanean ari direnek adingabea laguntzean sor daitezkeen beharrak edo zailtasunak egiaztatu ahal izateko.**
- f) Helduekiko prestakuntza eta aholkularitza, eta ikasgelako esku-hartzea** Hezkuntza Departamentuak bideratuko ditu eta, orobat, haurtzaroan eta gazterian transexualitatearen errealitatea nolakoa den berariaz ezagutzen duten sexologiako profesionaleri esleituko zaie. Horretarako, ikastetxeak Bizikidetzat Aholkularitzari esku hartzeko eskaera eginen dio eta hartan honakoak sartuko dira: ikastetxearen eta adingabearen arduradunen eta legezko tutoreen artean adostutako hizlariaren izena, egunak, orduak eta hartzaileak (1. ERANSKINA).
- g) Transexualitate-egoeran dagoen ikasleren bat izateagatik esku-hartzea** eskatzen duten ikastetxeei Hezkuntza Departamentuak aditzera emanen die izan badela adingabe transexualen gurasoen elkarteak sustatutako ikastetxe-sare bat.

## **4. Eskolan diskriminazio eta jazarpeneko balizko kasuak daudenean hartu beharreko neurriak**

---

- a) Hezkuntza erkidegoko edozein kidek ikasle bat eskolan jazartzen dutela, eta indarkeria edo tratu txarrak jasaten dituela baldin badaki edo horren susmoak baldin baditu, behartuta dago tutoreari, ikastetxean orientazioaren ardura duenari edo zuzendaritza taldeari adieraztera. Nolanahi ere, informazioa jasotzen duenak beti horren berri emanen dio Zuzendaritzari eta azken honek eskola jazarpeneko protokoloa aktibatuko du.
- b) Bizikidetzaren Planean bilduko diren beharrezko neurriak ezarriko dira, gerta daitezkeen diskriminazio-jokabideei edo balizko jazarpenei aurre egin eta horietan esku hartzeko; neurri horien artean daude behar diren protokoloak ezartzea.
- c) Transexualitate-egoeran dagoen ikasleari eraso fisiko edo psikologikorik, mesprezurik edo irainik eginez gero, ikastetxeko Zuzendaritzak esku hartuko du eta protokolo hori eta eskola jazarpenekoa abiatuko ditu eta, orobat, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari horren berri emanen dio.
- d) Familiak ikaslearen sexu-nortasunaren aurrean duen jarreragatik tratu txarren zantzuak hautematen direnean, tratu txar psikologiko, fisiko edo hitzezko kasuetan legez aurreikusitakoaren arabera jokatu da.

# 1. ERANSKINA

---

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUKO BIZIKIDETZA AHOLKULARITZAK ESKU  
HARTZEKO ESKAERA

Eskatzailearen izen-deiturak: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

NANA: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Zer den: (azpimarratu) Ikaslea

Aita

Ama

Besterik: Zehaztu zein: \_\_\_\_\_

Ikaslearen izen-deiturak: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Adina: \_\_\_\_\_ Ikasmaila: \_\_\_\_\_

Ikastetxea: \_\_\_\_\_

Tutorearen izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Eskaeraren zergatia:

(beharrezkoa bada orrialdearen atzean idatzi)

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an

